



Barne diseinuaren ikastaroan parte hartzen ari diren dendariak GATC

Merkatariak formazio ikastaroetan parte hartzen ari dira

Goierrri » Bi-Tartean eta Ilini elkarteetako dendariak merkataritzako barne diseinuari buruzko ikastaroa egiten ari dira

MIRIAM LUKI

Dendartean merkatarien elkarteetan biltzen diren taldearen bidez, Ilini eta Bi-Tartean elkarteetako merkataria prestakuntza programan parte hartzen ari dira. Ekainaren 6a bitartean merkataritzako barne diseinuari buruzko ikastaroa egiten ari dira Legazpiko Bikuña jauregian. Ikastaroa teorikoa eta praktikoa da, eta bertan parte hartzen ari diren merkatarien dendetara bisitak egiten dituzte, tokian-tokian aholkularitza eskaintzeko.

Ugasa agentzian merkatariekin lan egiten duen Ainhoa Maiztegi teknikariak adierazi du aurtur merkatarien formakuntza bateratua eskainiko dietela Bi-Tartean eta Ilini merkatariei. «Izan ere, neurri handi batean euren beharrik berdinak baitira». Hori dela eta, formakuntza programaren %80 bateratu dute.

Merkatarien arteko lankidetzak Formakuntza programaren helburua, merkatariei bide berriak irekidteaz gain, profesionalen arteko lankidetzak sustatzea da.

Urtea amaitu bitartean hainbat ikastaro dituen egitaraua prestatu dute. Jardunaldietan diseinuz, estresaren kudeaketaz, hornitzaileekin hartu-emanaz, eskaparatismoaz eta ematen duten arretaz jardungo dute.

» IKASTAROEN EGUTEGIA

- **Merkataritzako barne diseinua.** Egunotan ematen ari diren ikastaroa, ekainaren 6ra arte.
- **Estresaren kudeaketa.** Ekainaren 16tik 27ra
- **Hornitzaileekin negoziazioa.** Irailean izango da, data zehaztu gabe daude

- **Eskaparatismoa.** Fardelak eta bildukinak egiten ikasteko ikastaroa. Urriaren izango da, antolatzaileek data zehatzik ez dute ipini oraindik.
- **Kalitatea bezerean arretan.** Azaroran izango da, data ez dute zehaztu

Laburrak

Udaberriko kontzertua eskainiko dute gaur

URRETxu » Iparragirre Balerdi musika tailerrak eta Urretxuko Txistulari Elkarteak udaberriko kontzertua eskainiko dute gaur, arratsaldeko zazpitan, Tourseko Martin Deunaren elizan. Jesus Castillejok egingo ditu zuzendari lanak, eta Turrijillas, Von Suppe, H. L. Walters eta Usadizagaren musika-lanak joko dituzte.

Odol ateraldiak izango dira etzi Osasun Zentroan

ZUMARRAGA » Zumarragako Odol Emaleen Elkarteak gogorarazi du etzi, astearte, 18:00etatik 20:00etara odola eman ahaliko dela Zumarragako osasun zentroan. Emaleek hemezortzi urtetik gora eta 50 kilo baino gehiago izan behar dute, osasun onaz gain.

Azpiatzuren hitzaldia ekainera atzeratu dute

LEGAZPI » Legazpi 400 Urtez Aske Batzordeak antolatuta Legazpi y los ferones vascos hitzaldia zuten ematekoa Legazpin. Atzeratu egin dute. Jose Antonio Azpiatzuk ekainaren 26an emango du hitzaldia.

Datorren ostegunean oilar joko egingo dute plazan

LEGAZPI » Urteroko oihurari eutsiz aurtur ere oilar joko egingo dute Legazpiko Euskal Herria plazan. Datorren ostegunean izango da, arratsaldeko zazpitan aurrera.

Oskorrik Legazpi Musika Bandarekin joko du

LEGAZPI » Datorren ostiralean, maiatzak 30, Oskorri Banda Band kontzertua izango da Latxartegi aretoan. Legazpin Musika talde horrek Legazpi Musika Bandarekin batera eskainiko du kontzertua. Euskal Herriko herrietan egiten ari diren biraren barruan iritsiko dira Oskorriko kideak Legazpira, eta orangoan bertako banadorekin kontzertua eskainiko dute. Sarrerak hamar euroan salduko dituzte Latxartegi aretoko leihatilan, gaueko bederatzietatik aurrera. Kontzertua gaueko hamarretan hasiko da.

Boluntarioen Egunaren atarian mahai-ingurua eta zinema daude

Goierrri » Seigarren aldiz eskualdeko elkarteek Boluntarioen Eguna ospatuko dute datorren igandean, Zelai Ariztin

zatearen aldekoa da», gehitu dute. Horrez gain, jardunaldien helburua partaide berriak erakartzeko bada. «Borondatezko ekintzetara herritarrak erakarri nahi ditugu, gure elkarteetara hurbil daitezten eta horietan parte har dezaten».

M. LUKI

Datorren igandean Boluntarioen Eguna ospatuko dute Bidea Eginenez elkarteak sartzen diren talde guztiak. Seigarren aldia da aurtengoa. Igandea baino lehen ere antolatutako emanaldiak: mahai-ingurua eta zinema saioa.

Bidea Eginenez elkarteak kideen arabera Boluntarioen Jardunaldiaren helburua herritarrei hainbat elkarte, esparru desberdinetan eta boluntarioen laguntzarekin egiten duten lana erakustea da. «Lan hori pertsona guztien garapeneren aldekoa eta guztion ongi-

Asteko jarduerak

Datorren asteartean, maiatzak 27, *Pertsona guztientzako hiria* izenburupean mahai-ingurua egingo dute Zelai Arizti kultur etxeko areto nagusian, 19:00etan hasita. Hizlari Arquitectos Sin Frontieras elkarteak kideak izango dira, besteak beste.

Asteazkenean, hilak 28, toki eta ordu berean, *Cadena de favores* filma emango dute.

Boluntarioen eguna Zelai Arizti parkean ospatuko dute datorren igandean 11:00etatik aurrera ahasiko dituzte jarduerak.

Gizarte laguntzak ahalik eta gehien probesten ikasteko hitzaldia dago

Legazpi » Datorren asteazkenean izango da, Gizarte Zentroan, Nagusilan elkarteak antolatuta.

kusia duten baliabideei buruz bereziki errepertatuta.

Antolatzaileek aurreratu dute informazio hori beharra duten adinekoentzat baliagarria izango dela, zenbait erabaki hartzerako orduan lagungarri gertatuko zaielakoan.

M. LUKI

Datorren asteazkenean, hilak 28, Nagusilan elkarteak antolatuta gizarte-laguntzak ahalik eta ondoen probesten erakusteko hitzaldia eskainiko du Almeduna Carrillok. Hitzaldia arratsaldeko sei etan izango da Legazpiko Gizarte Zentroan, eta gaiarekiko interesa duen herritar oro joan daiteke.

Gipuzkoa mailan dauden baliabideei buruzko informazioa emango du Carrillok hitzaldian, beti ere gizarte laguntzekin zeri-

Aukera desberdinak

Adinekoentzat dauden laguntzen izaeraz eta kopuruaz ariko da Carrillo. Norberaren etxebizitzan gelditzea aukera aukatuz gero zein laguntza dauden, edo egoitzetara jotzea erabakitzen duten adinekoentzat erakundeek ematen dituzten ekarpenak, berdin eguneko zentroak behar dituztenentzatezere Menpekotasunaren Legeaz ere hitz egingo du Almeduna Carrillok.

Goierriko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • goierri@goierrikohitza.info / Tel.: 943-16 00 55

hilberriak
urteurrenak
eskertzak